



INFORMAZIOA Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Baimena lortzeko eta Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan izena emateko prozedurari buruzkoa (Ikus eranskineko A oharra)

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- ✓ Eskaera-orria egoki beteta.
- ✓ Sortutako hondakin arriskutsuen sortze-baldintzen eta kudeaketaren informazioa, erantsitako inprimaketan eskatu bezala.
- ✓ Eskumena duen kudeatzaileak hondakin arriskutsu bakoitzarentzat emandako Onarpen Agiriaren fotokopia (ikus B oharra).
- ✓ Zentroaren, instalazioen eta hondakin arriskutsuen biltegien kokapen-planoak.
- ✓ Hondakin arriskutsuen etiketen kopiak (ikus J oharra) eta hondakin arriskutsuekin egindako azken kudeaketak jasotzen dituen Erregistroaren fotokopia (ikus L oharra). Jarduera berria bada, erabiliko den Erregistroaren fotokopia aurkeztu behar da.

ARGIBIDE OROKORRAK:

- ✓ Hondakin arriskutsuak nola sortzen eta kudeatzen diren egoki deskribatzea ezinbestekoa da. Horretarako, atxikitako informazioan azaltzen diren argibideak jarraitu behar dira. Eskatutako datu guztiak eman behar dira. Datuak ematerakoan zalantzak izanez gero, litekeena da hondakin arriskutsuen sortzaile bezala izan beharreko bitarteko guztiak ez izateagatik edota betebeharrak guztiak ez ezagutzeagatik izatea. Galdera batzuk aukera bakarra ematen dute, hori baita erantzun baliagarri bakarra. Hala ere, beharrezkoa irudituz gero, beti dago orrian bertan edo eranskineko batean bakoitzaren ustez egokiak diren oharrek gehitzeko aukera. Informazio hau araudia betetzen den frogatzeko autotesta izateko prestatuta dago (ikus C oharra).
Bidalitako informazioa egoki beteta ez badago eta HONDAKIN ARRISKUTSUEN BANAKETA ETA KUDEAKETA EGOKIA ZIURTATZEN EZ BADA, ez da eskatutako baimena edo izen-ematea onartuko.
- ✓ Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Baimena eskatuz gero, sortutako hondakinak egoki kudeatzeko bitartekoak izatea frogatu behar da baimena jaso ahal izateko. Hau da, hondakinak jatorrian banatzeko, ontziratze, etiketatze, biltegitratze eta erregistratze gai izatea frogatu behar da. Edonola ere, Organo honetako teknikariek ikuskatze-bisita egingo dute. Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan izena emateko prozedurari dagokionez, Organo honi dagokio ikuskaritza-bisita egitea. Gainera, dagokion araudian jasotako baldintzak betetzen direla ziurtatzea eskatu ahal izango da.
- ✓ Baimena zein izen-ematea Ingurumen sailburuordearen ebazpen bidez lortzen dira.

BERAZ, eskatutako informazioa bete aurretik, honako baldintza hauek bete behar dira:

- ✓ Sortutako hondakin arriskutsuak ezagutzea (ikus D oharra). Hondakin arriskutsuak elkarrekin edo beste hondakin batzuekin EZ NAHASTE. Arriskua handitzen duten edo kudeaketa zailtzen duten nahasketak eragotzi behar dira bereziki. Elkartzeak eginez gero, hondakin homogeneoen artean egin behar dira.
- ✓ Azken kudeaketako bideak ezarrita izan behar dira, baita eskumena duen kudeatzaile batek emandako Onarpen Agiria ere. (ikus B oharra).
- ✓ Sortutako hondakin arriskutsuen ONTZIRATZE, ETIKETATZE, BILTEGIRATZE ETA ERREGISTRATZE baldintza egokiak bermatzeko bitartekoak izatea. (ikus I, J, K eta L oharrek).

Baldintza horiek betez gero, eskatutako informazioa aurkezteko inolako arazorik ez da izango, ezta hondakin arriskutsuen sortzaile-jarduerak exijitutako betebeharrak betetzen direla edozein unetan ziurtatzeko ere.

Hondakin arriskutsuei buruzko informazio osagarriak gure webguneko Hondakinak eta Hondakin Arriskutsuak ataletan kontsulta daitezke (www.euskadi.net/medio_ambiente/). Honako informazioak, berriz, posta elektronikoz, faxez edo postaz ere bidaltzen dira:

- EAEko Hondakin arriskutsuen kudeatzaile baimenduen zerrenda.
- Hondakin arriskutsuak identifikatzeko oharrek eta hainbat dokumenturen ereduak (erregistroak, etiketak...).
- Hondakinen legeria.
- Hondakin Arriskutsuen Ekoizleen Urteko Aitorpena egiteko ereduak edota aplikazio informatikoa.

Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen Zerbitzua

Donostia, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) - Tfno: 945 019905 - Fax: 945 019911 - Email: servicio-rtp@ej-gv.es

**Hondakin Arriskutsuen Ekoizle izateko baimena edo Ekoizle Txikien Erregistroan izena emateko eskaria***Solicitud de autorización de Productor o de inscripción en el Registro de Pequeños Productores de Residuos Peligrosos***Eskatzailearen datuak / Datos del solicitante**

Abizenak eta izena / Apellidos, Nombre

NAN / DNI

Enpresaren datuak / Datos de la empresa

Baltzuen izena / Razón Social

IFZ edo IFK / NIF ó CIF

Baltzuen helbidea (kalea, zk,...) / Razón social (calle, número)

Herria / Localidad - Udalerria / Municipio

Posta Kodea / Código Postal

Telefono-zenb. / N° Teléfono

Lurralde Historikoa / Territorio Histórico

Fax-zenb. / N° Fax

Enpresak EAEn zenbat lantegi dituen (sortzaileak, administratiboak, ...) /
Número total de centros de la empresa en la C.A.P.V. (productivos, administrativos, ...)

Posta-kutxa / Apdo. correos

Hondakin arriskutsuak sortzen dituen lantegiaren datuak / Datos del centro productor de residuos peligrosos

Lantegiaren izena / Denominación del centro de trabajo

IEIZ / NIRI (N°Inscrip. Registro Industria)

Lantegiaren helbidea (kalea, zk,...) / Domicilio del centro de trabajo (calle, número)

Telefono-zenb. / N° Teléfono

Herria / Localidad - Udalerria / Municipio

Posta Kodea / Código Postal

Fax-zenb. / N° Fax

Lurralde Historikoa / Territorio Histórico

Posta elektronikoa / Correo electrónico

Jardueraren deskribapena / Descripción de la actividad

EIES / CNAE

Langile koporua
N° de empleados

Honako hau eskatzen du Ingurumen Sailburuordetzan, hondakinei buruzko apirilaren 21eko Legearen eta uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren arabera:

Solicita ante la Viceconsejería de Medio Ambiente, de conformidad con la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos y el Real Decreto 833/1988, de 20 de julio:

EAEko Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan izena emateko, 833/1988 Errege Dekretuaren 22. artikulua araberaz

Inscripción en el Registro de Pequeños Productores de Residuos Peligrosos de la CAPV conforme al artículo 22 del Real Decreto 833/1988

Hondakin Arriskutsuen Ekoizle izateko baimena, 10/1998 Legearen 9. artikulua eta 833/1988 Errege Dekretuaren 10. Artikulua araberaz

Autorización de Productor de Residuos Peligrosos conforme al artículo 9 de la Ley 10/1998 y el artículo 10 del Real Decreto 833/1988

Eskatzaileak eskaera honekin aurkezten duen informazioan sortzen diren hondakin arriskutsu guztien berri eman du, baita emandako datuen egiazotasuna ere.

El solicitante declara en la información que se adjunta a la presente solicitud todos los residuos peligrosos que se generan, así como la veracidad de los datos aportados.

.....-en, 20.....ko(a)rena
izenpea

En....., a..... de..... de 20.....
Firma

ESTA SOLICITUD SE PUEDE PRESENTAR ante la Viceconsejería de Medio Ambiente o ante cualquier Delegación, en las siguientes direcciones:

ESKAERA HAU Ingurumen Sailordetzan edo edozein Lurralde Ordezkaritzatan AURKEZ DAITEKE, honako helbide hauetan:

c/ Donostia, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz (ARABA)

Gran Vía, 85, 6º- 8º, 48011 Bilbao (BIZKAIA)

Andía, 13, 20004 Donostia-SanSebastian (GIPUZKOA)

Edo BIDAL daiteke postaren bidez honako helbide honetara / O se puede REMITIR por correo a la siguiente dirección:

Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen Zerbitzua / Servicio de Residuos Tóxicos y Peligrosos c/ Donostia, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz (ARABA)

ZIGILATUTAKO KOPIA eska daiteke eskaera aurkezten den lekuan / Se puede solicitar COPIA SELLADA donde se presente la solicitud

“Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Baimena”edo “Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan” izena emateko eskaerei ERANTSI BEHARREKO INFORMAZIOA

A MULTZOA

DATU OROKORRAK. JARDUEREN ETA PROZESUEN DESKRIPZIOA.

1.- Zenbat kilo HONDAKIN ARRISKUTSU sortu edo inportatzen dituzu urtero? (Ikus A oharra)

10.000 kg baino gutxiago

10.000 kg baino gehiago

Oharrak:

2.- Izapideak egiteko harremanetarako pertsona (izenik ematen ez bada, eskatzailea izango da):
Izena, abizenak eta NANA:

Telefono zenbakia edota harremanetarako beste bitartekoak:

Enpresan duen kargua edo enpresarekin duen harremana:

3.- Jarduera industrialaren memoria (erantsitako orri batean bete behar da):

Baimena lortzeko zein izena emateko beharrezkoa da jarduera industrialaren memoria aurkeztea. Bertan, sortzen diren hondakin arriskutsu guztiak jaso behar dira (ikus D oharra). Era berean, derrigorrezkoa da honako datu hauek:

- ⇒ Jarduera-kodea (833/1988 Errege Dekretuko 6. taularen arabera).
- ⇒ Instalazioen deskripzioa, bereziki hondakin arriskutsuak sortzen direnetakoak.
- ⇒ Jardueran izaten diren prozesuen azalpena, bereziki hondakin arriskutsuak sortzen dituztenena.
- ⇒ Lehengaiak eta material osagarriak, bereziki hondakin arriskutsuak sortzen dituztenak.
- ⇒ Prozesu bakoitzean sortutako hondakinak –arriskutsuak zein, ziur egon ez arren, arriskutsuak izan daitezkeenak–.

Hondakin arriskutsuen elkartzeak prozesu berezi gisa deskribatu behar dira: osagaiak aipatu behar dira, baita zer-nolako prozesutan sortu diren ere. Elkartze bat egin ahal izateko, hondakin arriskutsuek homogeneoak izan behar dute.

Fabrikazio-fluxuen diagramak aurkez daitezke, fabrikazio-prozesu konplexuetan lagungarriak izan baitaitezke. Hori bai, hondakin arriskutsuen sorkuntza-fluxuak eta kudeaketa argi eta garbi identifikatu behar dira. Horrenbestez, hondakinen jatorria (prozesua, operazioa...) zein erabilera (prozesuan bertan kudeatzea, beste prozesu osagarri batean tratatzea edo elkartzea...) zehaztu behar dira. Prozesuen eta hondakinen deskripzioan zalantzarako tarterik uzten ez duten izendapenak erabiltzea funtsezkoa da, bereziki baimen-eskaerari dagokionez.

Hondakin arriskutsuen ekoizle-baimena eskatzeko, BAIMENDU BEHARREKO PROZESU BAKOITZAREN DESKRIPZIO INDIBIDUALA egin behar da, betiere bakoitza identifikatuz eta ezberdinduz –bereziki hondakin arriskutsuak sortzen dituzten prozesuak deskribatu behar dira–. PROZESU BAKOITZAREN deskripzioan ezin dira honako datu hauek falta:

- ⇒ Jarduera-kodea (833/1988 Errege Dekretuko 7. taularen arabera).
- ⇒ Prozesuak jardueran duen funtzioaren deskribapena.
- ⇒ Instalazioen deskribapena, bereziki hondakin arriskutsuak sortzen direnetakoak.
- ⇒ Prozesuan erabiltzen diren lehengaien zein material osagarrien zerrenda eta jasaten duten eraldaketaren deskribapena, bereziki hondakin arriskutsuak sortzen dituzten substantzien kasuan.
- ⇒ Prozesu bakoitzean sortutako eta kodifikatutako hondakinak, baita prozesu osagarri batean kudeatzen direnak ere –tratamendua jasotzen dutelako edo hondakin homogeneoekin elkartzen direlako–.

4. Hondakin arriskutsuak ibilgailu partikularretan garraiatzen dituzu, adibidez, enpresako zentroen artean? Bai ↑ EZ ↑

Bai erantzunez gero, erantsitako orri batean garraiatutako hondakin arriskutsu motak eta kopuruak deskribatu, baita erabilitako ibilgailuak ere. Garraioa enpresako zentroen artean egin den edota zer nolakoa izan den azaldu.

5. Etiketatzea. Hondakin arriskutsuak dituzten ontzi guztiak egoki etiketatzen al dituzu? (Ikus J oharra.)
Bai Oharrak:

6. Gordetzen dituzu Sortutako hondakin arriskutsuen erregistroak? (Ikus L oharra.) Bai

B.1 MULTZOA HONDAKIN MOTA BAKOITZAREN DESKRIPZIO INDIBIDUALA

(Multzo honen ale bat aurkeztu behar da hondakin arriskutsu bakoitzeko, baita Onarpen Agiria edo agiri baliokidea ere – eranskinaren B oharra ikusi–)

1. Hondakinaren izena (ikus E oharra):
2. Hondakina sortzen den prozesua edo prozesuak (jarduera memorian deskribatu ditugu lehen).
3. Hondakin arriskutsuaren egoera (Ikus K oharraren hirugarren paragrafoa)
 - Hautsa/hauts egoeran
 - Solidoa
 - Oretsua/likatsua
 - Beste batzuk edo aurrekoen nahasketa (deskribatu)
 - Lohitsua
 - Likidoa
 - Gas egoeran
4. Hondakinaren osaketa, osagai nagusiak:
5. Arriskutsu bilakatzen duten substantziak (Ikus F oharra):

6. Hondakinaren identifikazioa kodea (Ikus G oharra):

1 Taula	2 Taula	3 Taula	4 Taula	5 Taula	6 Taula	7 Taula
Q_____	_____	_____	C_____	H_____	A_____	B_____

Kodeak aurreko puntuetan aurkeztutako deskripzioarekin bat egin behar dute.

7. CER kodea (ikus H oharra):
8. Hondakina:
 - Sorkuntza gunetik zuzenean hartzen da dagokion kudeatzailearen esku uzteko.
 - Ontziratatu gabe biltegitratzen da.
 - Eskumena duen kudeatzaile batek bildu aurretik ontziratatu eta biltegitratzen da.
9. Biltegitratze-baldintzak –dagokionean– (ikus I oharra);
 Ontzi mota:
 - Edukiontzia Bidoia Kutxa Presio-ontzia
 - Poltsa Beste batzuk (deskribatu).....
 - Ontzi konposatua (deskribatu).....

Itxidura: Hermetikoa Irekia

Ontziaren materiala: Plastikoa Metalikoa Beste batzuk (deskribatu):

10. Ekoizitako kopurua (urteko kiloak):

11. Eskumena duen kudeatzaileak bilketa egiteko duen maiztasuna:

Sei hilabete baino gehiago bada, hondakina zenbatean behin sortzen den zehaztu (10/1998 Legearen hirugarren artikulua hondakin arriskutsuak biltegian sei hilabete baino gehiago ezin direla egon ezartzen du):

B.2 MULTZOA HONDAKIN MOTA BAKOITZAREN DESKIPZIO INDIBIDUALA (*ale bat hondakin arriskutsu bakoitzeko, edo, hainbat hondakinek baldintza berak badituzte, deskripzio komuna*).

Hondakinaren izena (*1. ataleko B.1 multzoa*) edo, deskripzio komunaren kasuan, hondakinaren izenak:

12. Hondakin arriskutsuaren alde aurreko tratamenduren bat egiten duzu manipulazioa edo osteko tratamendua errazteko? Bai Ez
(Bai erantzunez gero, zehatz-mehatz deskribatu, beste orri batean beharrezkoa izanez gero.)
13. Ba al duzu tratamenduren bat *in situ* egiteko asmorik hondakin arriskutsuak balioztatu edo eliminatzeko? (10/1998 Legeko 3.k eta 3.l artikuluetan definitzen dira)? Bai Ez

Bai erantzunez gero, zehatz-mehatz deskribatu erantsitako orri batean. Tratamendu-metodoak eta erabiliko diren bitartekoak aipatu, baita lortutako emaitzak ere (hondakinak edota isurpenak). Horrez gain, proposatutako tratamenduaren eraginkortasuna ziurtatu behar duzu. Bidalitako informazioaren arabera erabakiko da ingurumen-inpaktuaren ikerketa egin behar den edo ez.

14. Biltegiatze-baldintzak (ikus K oharra):

Kokapena: Nabearen barruan Kanpoan, baina estalpean
Estalperik gabe, hermetikoki itxitako ontzietan

Lur iragazgaitzaren gainean daude hondakinak? Bai

Hauts edo hauts egoerako hondakinaren kasuan:

Big-bagetan edota homologatutako beste ontzi batzuetan gordetzen da (egiaztagiria aurkeztu).

Poltsak edota beste edozein ontzi mota hondatuz gero izan daitezkeen balizko isurketak kontrolatzeko sistema dugu (oharrak atalean zehatz-mehatz deskribatu).

Hondakin likido edo oretsuen kasuan (ikus K oharreko bigarren paragrafoa):

Biltzeko ontzia dugu.

Lurra maldan dago isurketak gune iragazgaitz batera joan daitezen.

Balizko isurketak jasotzeko beste sistema bat dugu (oharrak atalean zehatz-mehatz deskribatu).

Ontzia, gune iragazgaitza edo isurketak jasotzeko beste sistema bat:

Hondakin mota bakoitzarentzat berezia da.

Hainbat hondakin motarentzat bera da –aipatu zein diren oharrak atalean–.

(Oharrak atalean biltegiatze-baldintzen gainontzeko ezaugarriak aipatu: biltegiatze-gaitasuna, balizko ontzien edukiera eta gainontzeko datu garrantzitsuak.)

Oharrak:

ERANSKINA (oharrak)

- (A). Hondakin arriskutsuen ekoizle txikien erregistroko izen ematea baliagarria izan dadin, urteko hondakin kopurua ezin da 10.000 kg baino gehiagokoa izan –kontuan izan izen ematea sortutako hondakinen arrisku-mailaren arabera onartu edo ukatu daitekeela–. Aipatutako kopurua gaituz gero, hondakin arriskutsuen ekoizle-baimena eskatu eta Urteko Aitorpena egin behar da. Horrenbestez, sortutako kopuruaren estimazio egokia egin behar da. (833/1988 Errege Dekretuaren 18. eta 22. artikulua ikusi).
- (B). ONARPEN DOKUMENTUA: hondakin arriskutsu baten azken kudeaketa egokia dela ziurtatzeko eskumena duen kudeatzaile batek emandako Onarpen Dokumentuaren fotokopia aurkeztu behar da. Hainbat kasutarako beste dokumentu batzuk ere baliagarriak dira –erabilitako olioek ekoizle txikien kasuan adibidez, nahikoa da eskumena duen biltzaile batek emandako Entrega Egiaztagiria aurkeztea–. Hondakin arriskutsuak autogestionatu ahal izateko, beharrezkoa da Organo honen baimena (inprimakiaren 13. puntua ikusi).
- (C). HONDAKIN ARRISKUTSUAK SORTZEN DITUZTEN JARDUEREI EZARRITAKO ARAUDIA:
- Apirilaren 21eko Hondakinen 10/1998 Legeak ezartzen ditu jarraitu beharreko arauak (1998/04/22ko BOE), bereziki 11. eta 21. artikuluek –hurrenez hurren, hondakinak edukitzeari eta hondakin arriskutsuak ekoizteari buruzkoak–.
 - Betebehar horiek are eta gehiago garatu ziren uztailearen 20ko 833/1988 Errege Dekretuan (88/07/30ko BOE) eta uztailearen 20ko 952/1997 Errege Dekretuko aldaketan (97/07/05ko BOE) – bereziki hondakin arriskutsuak sortzen dituzten jardueren betebeharreari buruzko artikuluetan (13tik 22ra) eta hondakin arriskutsuen garraioari buruzkoetan (41 eta 42)–.
 - Hondakin arriskutsuen araudi partikularrak ere badaude honako arlo hauetan: Erabilitako olioak. PCB/PCT. Hondakin sanitarioak.
- (D). 10/1998 Legearen 3.c artikulua ezarritakoaren arabera, hondakin arriskutsuak honako hauek dira: Hondakin Arriskutsuen Zerrendakoak (952/1997 Errege Dekretuaren II. eranskinean argitaratuta dago eta 1998/11/17 ebazpenean jasotako Hondakinen Europako Katalogoaren laburpena da), substantzia arriskutsuak izan dituzten ontziak, hainbat pila mota, fluoreszenteak... Era berean, isurpen atmosferikoen garbiketa sistemetako iragazkiak eta isurpen likidoen tratamenduetatik eratorritako hondakinak ere arriskutsuak izan daitezke.
- (E). HONDAKINAREN IZENDAPENA: jardueraren memorian eta onarpen-agirian emandako izenarekin bat egin behar du.
- (F). Izanez gero, hondakinaren karakterizazioa edota analitikak aurkeztu behar dira. Eskura ez badira, eta osagaien inguruko zalantzak izanez gero, hondakina osatzen duten jatorrizko produktuen Segurtasun Datuen fitxak erabil daitezke. Fitxa horiek hornitzaileei eskatu behar zaizkie eta eskaera honekin aurkez daitezke.
- (G). HONDAKIN ARRISKUTSUEN KODEAK: uztailearen 20ko 833/1998 Errege Dekretuaren I. eranskinaren eta uztailearen 20ko 952/1997 Errege Dekretuko aldaketaren arabera. Hondakin Arriskutsuen Informazio Osagarriak zerrendara jo.
- (H). CER: Hondakinen Europako Katalogoa (Europako Batzordearen 2001/118/EB erabakiaren eta 2001/573/EB erabakiko aldaketaren arabera. Bi erabaki horiek EEAO-n argitaratu ziren: lehena 2001/2/16ko L47/1 zenbakian, eta, bigarrena, 2001/7/28ko L203/18 zenbakian). Hondakin arriskutsuen identifikazioari buruzko informazio gehiago jasotzeko, jo Hondakin Arriskutsuen Informazio Osagarriak zerrendara.
- (I). ONTZIRATZEA: 833/1988 Errege Dekretuaren 13. artikulua arabera.
- (J). ETIKETATZEA: eskaerari etiketa bakoitzaren eredu bana erantsi behar zaio. Eredu horiek 833/1998 Errege Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoa bete behar dute eta hondakinaren CER kodea jaso behar dute. Informazio gehiago jasotzeko, jo lehen orrialdeko Hondakin Arriskutsuen Informazio Osagarriak zerrendara.
- (K). BILTEGIRATZEA: 833/1988 Errege Dekretuaren 15. artikulua arabera.
- Hainbat biltegi izanez gero, guztiak deskribatu behar dira. Hainbat hondakin baldintza beretan biltegiratuz gero, deskripzio komuna aurkez daiteke, betiere zein hondakinez ari garen argi eta garbi zehaztuta.

- Produktu Kimikoen Biltegiatze Araudia jarraitu behar da. Ontzi bakoitzak ontzi handienaren bolumen bera edo guztiaren %10 izan behar du gutxienez (bi kopuruetatik handiena). Isuriak izan eta nahastuz gero arriskutsuagoak edo kudeatzeko zailagoak diren hondakinek ontzi indibidualak izan behar dituzte.
 - Hondakin arriskutsu likido edo lohitsuak biltzeko guneetan, balizko isuriak kontrolatzea ahalbidetzen duten ontziak edo biltze-sistemak ezarri behar dira. Oretsuak izan arren eduki likido altua duten hondakinetan ere horrela egin behar da, isuriak izan baitaitezke.
- (L). ERREGISTROA: eskaerari Erregistroaren kopia erantsi behar zaio –orri batekoa edo hainbatekoa–. Erregistroa 833/1998 Errege Dekretuaren 16.1 eta 17 artikuluen eta 952/1997 Errege Dekretuko aldaketaren arabera egin behar da. Informazio gehiago jasotzeko, jo lehen orrialdeko Hondakin Arriskutsuen Informazio Osagarriak zerrendara. Era berean, kontuan izan 833/1988 Errege Dekretuaren 16.2 eta 16.3 artikuluek Onarpen, Kontrol eta Jarraipen Agiriak gordetzea ezartzen dutela.